

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: I. M.^a Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Villasante, Arrue ta Irigaray jaun euskaltzaiñak. San Martin, Zugasti, Etxaniz, Artola, Zabala ta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Jose Agerre jauna il da Urriaren 19-an. Agertu bekio alargunari euskaltzainkideen dolu miña.

Domingo Agirre novela-sariaren erabakia irakurri da:

“Bizkaiko Ahorro Kaxak Euskaltzaindiari lagunduaz sortua duen Domingo Agirre novela-saria 1962 urtean nori eman erabakitzeke Euskaltzaindiak izendatu duen juradukoak bildu dira eta ao batez pentsatu dute saria “Gorrotoa lege” titulua duen novelari ematea. Begiratu da egillea nor dan eta Jon Etxaide dala ikusi da. Saria zortzi milla pesetakoa da.

Eta jakin dedin azpian firmatzen dute.

Bilbon 1962 Urriaren 19-an.

Antonio Arrue, Alfonso Irigoyen, Aingeru Irigaray, Jose Antonio Loidi.”

Bizkaiko Ahorro Kaxearen etxean emongo jako saria irabazleari Urriaren 31-an.

Datorren urterako Toribio Alzaga teatro-saria ipiñi bedi orainarteko oiñarriakaz. Bizkaiko Ahorro Kaxeak zortzi milla pesetok urtero emoten ditu.

Bertsolarien txapelketen gaiñean berba egin da. Egin direanak dira: Beasain-en Iraillaren 30-ean Jose Migel Iztueta “Lazkao txiki” txapeldun; eta Tolosa-n Urriaren 7-an, Kasiano Ibaguren txapeldun eta Fermin Muñoa bigarren. Gipuzkoako azken txapelketearen aurrekoa Eibar-ko Amaya Teatroan egin bedi Azaroaren 11-an.

Irigoyen-ek diño orain dala Bizkaiko Diputaziñoari berrogeta amar milla peseta-ko eskabidea egiteko tertzioa diputau batzukaz berba egin dauenez. Egin bekio iztegi lanaz gaiñera eskuarteko beste zeregiñetarako daukagun bearrizana be aitatuaz.

Irigoyen-ek diño igaz legez emakume ezezagun batek deitu deutsalala telefonoz eta amar milla peseta eskeiñi deutsalala Euskaltzaindiaren etxea al dan neurrian barriztetako. Eztan gura bere izena jakin daiten. Ontzat artu bedi eskeintzea eta Irigoyen-en eskuetan isten da zer egin leitekean.

Aita Villasante-k Axular-en *Gero* euskeraz eta erderaz argitaratzearen gainean jardun dau. Erosi bear direan aleak lenengo momentuan pagetako Arrue jaunak bide egoki batzuk aitatu ditu.

San Martin-ek aitatu dau mugaz goialdeko eta bealdeko batzuen artean egin gura daben kultura iztegia. Charriton, Krutwig, Labeguerie, Irigaray, bera eta beste batzuek dira dabiltzanak. Zorionak emon bekiez asmoagaitik.

Eibartar batek Leitzan euskerearen kontra egin ei dan barri lastimagarri bat bialdu dau. Idatzi bekio bertako alkateari, egia bada diñoskuena, zuzentzeko bideak artu daizan.

M.^a Paz Ziganda andreak milla pesetako emoitza bat egin dau Euskaltzaindiarentzat. Eskerrak emon bekioz.

“Radio Popular de Pamplona”-koak eskerrak emoten dituez Agerre ta Irigoyen jaunen bidez Iruñean egin zan “Nafar Jai”-rako emon dan laguntasunagaitik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

L. Mitxelena